

Euskarazko eta euskararen irakaskuntza: 2004-2021 arteko bilakaera eta 2021eko eskola sartzearen bilana




Aurkibidea:

- 1) Euskarazko eta euskararen irakaskuntza eskaintzaren garapena, azken 17 urteetan**
- 2) 2021eko eskola sartzea**

1) Eskaintzaren garapena azken 17 urteetan

Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapena: 1. mailako irakaskuntza publikoan

Irakaskuntza publikoko 1. mailako eskola elebidun eta elebakarren arteko banaketaren bilakaera




17 urtez, 2004tik 2021era:

- 49 sail elebidun ireki dira irakaskuntza publikoan:
 - 41 irekitze gune berrietan
 - 8 lehen mailan jarraipena segurtatzeko
- Irakaskuntza elebiduna eskaintzen duten eskolen eta eskola multzoen proportzioa %34tik %64ra emendatu da

Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapena: 1. mailako irakaskuntza girstinoan

Irakaskuntza girstinoko 1. mailako eskola elebidun eta elebarraren arteko banaketaren bilakaera




17 urtez, 2004tik 2021era:

- 8 sail elebidun ireki dira irakaskuntza girstinoan
- irakaskuntza elebiduna eskaintzen duten eskola girstinoen proportzioa, %50etik %67ra emendatu da

Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapena: 1. mailako Seaska federazioan

Seaska federazioko 1. mailako ikastolen kopuruaren bilakaera




17 urtez, 2004tik 2021era:

- 13 ikastola irekitze
- 2021eko eskola sartzean, 33 ikastola (hauetarik 3 beste ikastola bati lotuak)

Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapena: 1. mailako 3 sareetan

3 sareetako 1. mailako eskola elebidun eta elebarraren arteko banaketaren bilakaera



17 eskola sartzetan, 2004tik 2021era:

- 70 murgiltze eta sail elebidun irekitze lehen mailan:
 - 49 irekitze irakaskuntza publikoan, hauetarik 8 jarraipenaren segurtatzeko
 - 8 irekitze irakaskuntza giristinoan
 - 13 irekitze Seaskako murgiltze irakaskuntzan
- Euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten lehen mailako eskolen proportzioa %42tik %70era emendatu da

Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapena: 3 sareetako bigarren maila

Kolegioak

- 2004az geroztik, 12 sail elebidun ireki dira kolegioetan:
 - 6 irakaskuntza publikoan
 - 5 irakaskuntza giristinoan
 - 1 Seaskan
- 40 kolegioetarik 32k irakaskuntza elebiduna eskaintzen dute:
 - 18etarik 15ek irakaskuntza publikoan
 - 18etarik 13k irakaskuntza giristinoan
 - 4k Seaska federazioan

Lizeoak

- 2004az geroztik irakaskuntza orokorreko lizeoetan 5 sail elebidun ireki dira:
 - 4 irakaskuntza publikoan
 - 1 irakaskuntza giristinoan
- 14 lizeoetarik 11ak irakaskuntza elebiduna proposatzen dute:
 - 7etarik 6k irakaskuntza publikoan
 - 6etarik 4k irakaskuntza giristinoan
 - 1 Seaska federazioan


Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapena: Irakaskuntza teknologikoa, profesionala eta laborantzakoa

➤ 2021eko sartzean den eskaintza:

- Irakaskuntza teknologikoa:
 - ✓ Angeluko Stella Maris lizeoan, OGZT (Osasun eta gizartegintzako zientziak eta teknologiak) saileko 1.a eta terminala
 - ✓ Uztaritzeko San Josepe lizeoan, MKZT (Management eta kudeaketaren zientziak eta teknologiak) saileko 1.a eta terminala
 - ✓ Baionako Bernat Etxepare lizeoan, MKZT (Management eta kudeaketaren zientziak eta teknologiak) saileko 1. eta terminala
- Irakaskuntza profesionala :
 - ✓ Uztaritzeko San Josepe lizeoan, "Pertsonaren laguntza, arta eta zerbitzua" saileko 2.a, 1.a eta terminala
 - ✓ Uztaritzeko San Josepe lizeoan, Komertzio eta salmenta baxoko 2.a, 1.a eta terminala
 - ✓ Angeluko Stella Maris lizeoan, HZTB (Hurbileko zerbitzuak eta tokiko bizitza) saileko terminala
 - ✓ Angeluko Stella Maris lizeoan, "Animazio: haur eta adineko jendeak" saileko 2.a eta 1.a
 - ✓ Baionako Bernat Etxepare lizeoan, FPP (Formakuntza profesionalerako prestakuntza) 3.a
 - ✓ Baionako Bernat Etxepare lizeoan, HZTB (Hurbileko zerbitzuak eta tokiko bizitza) saileko terminala
 - ✓ Baionako Bernat Etxepare lizeoan, "Animazio: haur eta adineko jendeak" saileko 2.a eta 1.a
 - ✓ Baionako Bernat Etxepare lizeoan, Komertzio saileko 2.a, 1.a eta terminala
- Laborantzako irakaskuntza:
 - ✓ Frantsesenia laborantza lizeo pribatuan, "Pertsonentzako eta lurraldeentzako zerbitzuak" saileko 2.a, 1.a eta terminala

Kopuruen bilakaera: irakaskuntza publikoko 1. maila


**Irakaskuntza publikoko 1. mailako ikasle kopuruen bilakaera, irakaskuntza motaren arabera
(2 urtekoak kanpo)**



- 17 urtez, 2004tik 2021era, irakaskuntza publikoan:
 - irakaskuntza elebiduneko kopuruak %88z emendatu dira
 - ikasle elebidunen proportzioa %18,5etik %34,3ra emendatu da

Kopuruen bilakaera: irakaskuntza giristinoko 1. maila


**Irakaskuntza giristinoko 1. mailako ikasle kopuruen bilakaera, irakaskuntza motaren arabera
(2 urtekoak kanpo)**



- 15 urtez, 2004tik 2021era, irakaskuntza giristinoan:
 - irakaskuntza elebiduneko kopuruak %62z emendatu dira
 - ikasle elebidunen proportzioa, %23,8tik %36,5era emendatu da

Kopuruen bilakaera: Seaskako 1. maila


Seaska federazioko 1. mailako ikasle kopuruen bilakaera (2 urtekoak kanpo)



- 17 urtez, 2004tik 2021era, ikastolako murgiltze ereduan diren ikasleen kopurua %86z emendatu da

Kopuruen bilakaera: 1. maila sare guzietan


1. mailako ikasle kopuruen bilakaera, irakaskuntza motaren arabera (2 urtekoak kanpo)



- 17 urtez, 2004tik 2021era, irakaskuntza elebiduneko murgiltze edo parekotasun ereduan diren ikasle kopuruak 5 930etik 10 629era pasatu dira, hots %79ko emendatzea
- Ikasle elebidunen kopurua %24,5etik %41,5era emendatu da
- Murgiltze edo parekotasun ereduko ama-eskoletako ikasle elebidunen proportzioa %30,4tik %47,6ra emendatu da

Kopuruen bilakaera: kolegioa

**Kolegioko ikasle elebidunen bilakaera, 3 sareetan
(IEP, SEGPA eta 3. PVP-ak kanpo)**




17 urtez, kolegioan irakaskuntza elebiduna segitzen duten ikasleen kopurua:

- irakaskuntza publikoan: %5,8tik 2004ean %17ra 2021ean
- irakaskuntza giristinoan: %6,8tik 2004ean %17,5ra 2021ean
- Seaska federazioko murgiltze irakaskuntzan: 477 ikasletatik 2004ean 1 021 ikasletara 2021ean
- sail guztiak nahasirik: %9,6tik 2004ean %23,1era 2021ean

Kopuruen bilakaera: Lizeoa (irakaskuntza orokorra)

Lizeoko ikasle elebidunen bilakaera, 3 sareetan (irakaskuntza orokorra)




17 urtez, lizeoan irakaskuntza elebiduna segitzen duten ikasleen kopuruak:

- irakaskuntza publikoan: %3,8tik 2004ean %7,5era 2021ean
- irakaskuntza giristinoan: %2,5etik 2004ean %8,6ra 2021ean
- Seaska federazioko murgiltze irakaskuntzan: 178 ikasletatik 2004ean 334 ikasletara 2021ean
- sail guztiak nahasirik: %6,6tik 2004ean %12,2ra 2021ean

Kopuruen bilakaera: 2. maila sare guzietan (irakaskuntza orokorra)

**Bigarren mailako ikasle elebidun kopuruen bilakaera
(irakaskuntza orokorra)**



17 urtez, irakaskuntza elebiduna segitzen duten ikasleen kopuruak:

- kolegioan: %9,6tik 2004ean %23,1era 2021ean
- lizeoan: %6,6tik 2004ean %12,2ra 2021ean
- 2.mailako irakaskuntza orokorrean: %9tik 2004ean 19,4ra 2021ean

2) 2021eko eskola sartzea

Euskarazko sail berrien irekitzea

- Irakaskuntza publikoan: sail elebidun baten irekitzea Amotzeko eskolan, Senperen
- Seaska: ikastola baten irekitzea Bardozen

Osoki euskarazko irakaskuntzan oinarritu **3 esperimentazio berri** ama-eskoletan

- Irakaskuntza publikoan: Idauze Mendiko HEE (1./2./3.) eta Ortzaize/Arrosako HEE (1./2.)
- Irakaskuntza giristinoan: Aiherrako eskola librea (1./2./3.)

Osoki euskarazko irakaskuntza oinarritu **esperimentazioaren 2 hedapen ama-eskolako 3.urtean**

- Irakaskuntza giristinoan: Zuraideko Bihotz Sakratua eta Donapaleuko Etxekopar eskolak

2021eko sartzea: Murgiltze esperimentazioak ama-eskoletan

2021-2022an:

➤ Irakaskuntza publikoan: 22 esperimentazio bidean

- Ama-eskolako lehen eta bigarren urteak osoki euskaraz eskaintzen dituzten 7 esperimentazio: Biarritzeko Thermes Salins, Lapurdiko Jatsuko, Baionako Jules Ferry, Urruña erdiko, Ziburuko Marinela, Hiriburuko Basté-Quieta eskolak eta Ortzaize/Arrosako HEE;
- Ama-eskolako lehen hiru urteak osoki euskaraz eskaintzen dituzten 15 esperimentazio: Larresoroko, Arbonako, Azkaineko, Biarritzeko Reptou, Donibane Lohizuneko Urdazuri, Ahetzeko, Sarako, Ahatsa/Mendibeko HEE, Donibane Garazi/Izpurako HEE, Banka/Urepeleko HEE, Arnegi/Luzaide mugazgandiko HEE, Getariako, Irisarriko, Ainhoako eskolak eta Idauze Mendiko HEE.

➤ Irakaskuntza giristinoan: 20 esperimentazio bidean

- Ama-eskolako lehen bi urteak osoki euskaraz eskaintzen dituzten 2 esperimentazio: Haltsuko Maurice Harriet, Itsasuko San Josep eskolak;
- Ama-eskolako lehen hiru urteak osoki euskaraz eskaintzen dituzten 18 esperimentazio: Angeluko Stella Maris, Beskoitzeko San Bixintxo, Kanboko Andra Mari, Donazaharreko San Mixel, Urruñako San Frantses Xabier, Ezpeletako Jondoni Extebe, Arbonako Laurendi, Azkaineko Andra Mari, Senpereko San Josep, Uztaritzeko San Bixintxo, Donibane Lohizuneko Urquijo, Hazparneko Santa Terexa, Baigorriko Donostei, Donibane Garaziko Andra Mari eta Ortzaizeko San Mixel, Zuraideko Bihotz sakratua, Donapaleko Etxekopar eskolak eta Aiherrako eskola librea.

2021eko eskola sartzea: 2 HEDI berri (hizkuntzak ez diren ikasgaiak) kolegioan

2021-22an:

- **2 HEDI - hizkuntzak ez diren ikasgai berri euskaraz irakatsiak irakaskuntza publikoan**
 - Gorputz Heziketa Donibane Garaziko Zitadela kolegioan (irakasle euskaldun baten integratzea Akademian)
 - Gorputz Heziketa Baionako René Cassin lizeoan (formakuntza trinkoaren ondotik, eta euskara maila egiaztatu ondotik)
- **6 kolegio publikok eta 4 kolegio giristinok oren parekotasuna lortu dute 4 mailetatik batean guttienez, eta 3 mailetatik batean lizeo giristino batek.**

▪ Baionako Camus kolegioa ▪ Baionako Marracq kolegioa ▪ Biarritzeko Fal kolegioa ▪ Hendaia Irandatz kolegioa ▪ Hiriburuko Aturri kolegioa ▪ Donibane Lohizuneko Ravel kolegioa	▪ Kanboko San Mixel Garikoitz kolegioa ▪ Hazparneko Ursuia kolegioa ▪ Senpereko Arretxea kolegioa ▪ Donibane Lohizuneko Dona Maria kolegioa ▪ Baionako Villa Pia lizeoa
--	--